

AZPIMARRAK

n a r r a t i b a • 143

ere in

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2023ko maiatzean*

Azalaren diseinua:  
Iosune Sarasate Azcona

Maketazioa:  
Erein

© Nerea Balda Sanjuan

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-893-5

L.G.: D 398-2023

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Nerea Balda Sanjuan

AZPIMARRAK



*Etxekoei, etxe izateagatik.*

Ez gaude egunkarietan,  
tabernan, autobusetan gaude  
Eta elkarri ukitzen diogu  
Efemeridea nahi gabe

*Anari, Efemerideak*

Liburuan zehar agertzen diren poema zatiak honako poema eta egileei dagozkie:

61. orrialdean: *Ja no és l' amor el qui mena els teus passos* poematik, Vicent Andrés Estellés.

63. orrialdean: *Res no és mesquí* poematik, Joan Salvat-Papasseit.

117. orrialdean: *Ara no es fa, pro jo encara ho farà* poematik, Joan Salvat Papasseit.

134. orrialdean: *Gauezko ordutegiak* poematik, Joan Margarit (Josu Jimenezen itzulpena).

138. eta 140. orrialdeetan: *Plantar sobre la terra* poematik, Montserrat Abelló.

# 1

## SELVA

X izpien itxarongelan dauden gizonei arretaz egin die so. As-  
tebete darama Selvak traumatologiako solairura iristen diren  
gizon gazteei behatzen. Eskuak aztertzeke joera du, asko esa-  
ten diote eskuek, azal leun eta ilerik gabekoak gustuko ditu,  
apur bat infantilak, hatz luzedunak. Horrelako esku gutxi  
ikusitako ginekologoarekin hitzordua lotu eta gizonei eska-  
nerra balitz bezala begiratzen hasi zitzaientetik. Googlen bilatu  
du esperma-emaileen profila nolakoa izaten den, baina horrek  
ez dio argitu kontsultan bertan esango lioketen baino gehiago,  
are gutxiago nolako eskuak izan ohi dituzten. 18-35 urte bi-  
tarteko gizonak aztergai dituzte erabakia hartu zuenetik, bere  
umeak edozeinen geneak eraman litzakeela jakitun.

Kalkulatu du itxarongelaraino eraman duen gaixoa hau-  
tagai izateko tartean dagoela. Baina ez, horrek ere ez du so-  
bera gogobetetzen. Esku politak lituzke etengabe galtzen  
kontra izerdia lehertzeko igurtziko ez balitu, baina laster  
soilgune garbia izango dena suma dezake gurrpil aulkia gida-  
tzeko posiziotik. «Ez nau harritzen», esango lioke Oriolek,  
«neure aldean, beste guztiak galtzaile». Eta egia da, haren es-  
kalatzaile besoek, txima luze anakronikoek eta ume irribarreak

osatzen duten konposizioa hasieratik izan zitzaion tentagarri. Selvak ezin du sinetsi nola aukeratu duen Oriolek bera, berderatzi urte zaharragoa, ile urdinuak eta begi inguruko zimurrak estaltzeko ahalegina ere egiten ez duena. «Horrexegatik», erantzun zion Oriolek zalantza hura bota zion lehenaldian, «horrexegatik beragatik». Gerora, oheratu ondoren galdera bera egiteko joera hartu zuen, mutilari ziurtasun falta hori gogaikarria zitzaiola ohartu zen arte.

Bera aukeratu zuen, bai, baina ez du oraindik lagunartean aurkeztu, halere. Ume apetatsu kuadrilla irudituko zaiola, horixe aitzakia. Lankideen aurrean ere isilpean daramate harremana; adostasun espliziturik gabeko adostasuna. Selvari atsegin morbosoa eragiten dio, batez ere txanda bukatutakoan lankideekin garagardo bat hartzera atera eta iruditzen zaionean bera baino gazteagoek Orioli miretsita begiratzen diotela. «Zuek begiratu, eta neuk dastatuko dut», pentsatzen du, eta horrela elikatzen dute elkarrenganako desioa.

Gaixoa dagokion kabinan utzita, Oriol ikusi du, korridorearen bestaldeko igogailurantz hutsik doan ohatila bati bultzaka. Oriol ere izan zitekeen esperma-emailea, nahiz eta eskuak eskaladak laztuak dituen. Egia esan, bera litzateke aukerarik errazena, eta merkeena; pilula hartzeari utzi eta kitto. Selvak ozta-ozta lortu du igogailuan sartzea; mutilak, gerritik oratu, eta aitortu dio:

—Badakizu nire fantasia zein den?

—Igogailuan egitea? Originalagotzat zintudan... Baina ez naiz horretara etorri. —Igogailuko atea ireki da, eta, kanpoan

inor ez dela ziurtatu ondoren, handik atera da Selva—. Zurekin hitz egin behar dut; etorri gero etxera.

Mutilaren hatz potoloaren keinua ikusi du atea berriz itxi aurretik. Estrategia kontua izan da, laneguna baitute, eta Selvak badaki Oriolen bisita izaten duela lanegunetan. Txanda bera egokitzen ez bazaie ere, topatzen dute zirrikituren bat, egunerokoari dirdira pixka bat ateratzeko behintzat, pentsatu ohi du Selvak.

Gaur, ordea, enkontruari hitzordu serioaren itxura eman nahi izan dio neskak, eta zortea izan du Oriolek ez duelako izan galderarik egiteko betarik.

\* \* \*

—Ama izan nahi dut —bota dio Selvak iritsi berriari, beste ezertan hasteko aukerarik eman gabe. «Garagardoak bukatu zaizkit» entzuten dueneko keinuaz erantzun du Oriolek, azeptakeriabainazeregingoduguba etsi batez—. Bakarrik —erantsi du, eta ohartu da lasaitua hartu duenaren keinu ia sumazinak ihes egin diola mutilari.

Selvak uste du Oriolekin dagoenean sentitzen duenari zorientasuna dei dakiokeela, edo, behintzat, gizon baten ondoan zorientasunetik inoiz egon den hurbilen dagoela. Eta jakin ere badaki horrek ez duela esan nahi bere seme-alaben aita izan behar duenik; areago, argi dauka zorientasun horri eutsi nahi badio berak bakarrik izan behar duela umea. Aspaldi argi daukan kontua da. Eta horrela azaldu dio maitalearen amatasunean zer rol jokatuko duen asmatu ezinik dabilen Orioli.

—Eta nik, beraz?

—Lagunekin ateratzen jarraituko duzu, eta tarteka bisi-tan etorriko zara, eta, orain bezala, hiru egunez jarraian ni-rekin bizitzen gelditu, eta, zeure zapatilen kiratsa zabaltzen hasten denean, etxera bidaliko zaitut. —Eskumuturretan hasi eta besoetan gora luzatu dio laztana, eskuak elastikoaren mahuken azpitik desagerrarazi arte. Izerdi usain leuna sumatu dio bularraldeko giharrak laztantzeko elastikoa erantzi dio-nean.

Maite jokoan zurrunbiloan, kontsultara lagundu die-zaion eskatzeko zorian izan ondoren, pentsatu bezain azkar damutu izanaz poztu da.

Apirilaren 23rako eman zioten IVIn hitzordua; Oriolek poeta kataluniarren antologia hura oparitu zion egunaren urtemu-garako, alegia. Lankide huts izatetik koxka bat gora egin zuen Sant Jordiko diada haren urtemugan izango zela pen-tsatzek apur bat traidore sentiarazi zuen. Bere esperma-emaileak zer oparituko lioke, arrosa ala liburua? Bururatuko litzaioke inoiz poesia antologia bat oparitzea? Irakurtzen ote duten ez diete galdetzen esperma-emaileei, ziurrenik. Gizon profila hautatzeko emango ziotela irudikatua zuen Selvak, igande arratsaldeetako auskalo zer filmetan ikusi bezala. Argala, piano jotzaile eskuak, begirada gardena, «Oriolen antitesia, egia esan», pentsatu du mutilaren azalean ordura arte aurkitu gabeko orezta bati erreparatzearekin batera. Lo dagoenean so egiten diolarik, akatsik gabea iruditzen zaio,

Polikletoren Doriforoa, eta gustuko du pentsatzea lankideek elkarrekin oheratzen direla jakingo balute bekaizti begiratuko lioketela. Baina ez lioke Oriolen perfekzioa –zazpi buruen edertasun kanona, aldaka eta gerri markatuak– eskatuko bere esperma-emaileari. Esku finak, piano jotzaile eskuak, idazle eskuak. Horixe.

Mutila ez esnatzeko tentuz jaiki da Selva, goiz den arren ezin baitu berriz ere loak hartu. Orduak falta dira hitzordurako, eta ugalketa klinikaraino oinez joatea otu zaio. Croissant egin berriak erosi eta gonbidatuak datozenean erabiltzen duen platerean atondu ditu, sukaldeko mahaian utzi aurretik. Ohartxoia ere utzi dio, «Ezezagun nuen orezta bat aurkitu dizudalako». Oriol irribarrez irudikatu du, tximak nahasita, galtzontzillotan zutik opilak irensten, eta oharrari «maite zaitut» eranstekeo tentazioa izan du; burua astinduz uxatu du printzesa ipuinek utzitako erromantizismo melengaren bat-bateko agerpena.

Barcelonetako kaleak martxan dira abiatu denean; turisten kontra maldizioka ari den andre batek hankak zipriztindu dizkio espaloiara balde bete ur amorruez bota duenean. Katalanez errieta egin dio Selvak, eta barkamena eskatu dio andreak orduan. Metro batzuk aurrerago andrearen haserrea eragin duen ingeles bikote mozkorra bistaratzean, «eta apirila baino ez da», pentsatu du.

Postu gehienak prestatzen ari dira ordu pare bat barru lepo egongo diren Rambletan. Bere lehen Sant Jordiaz oroitu da, oraindik hura bere festa ez zela sentitzen zuenekoaz. Hatzekin zenbatu behar izan du urteak kalkulatzeko, eta halere

ezin du erabaki bederatzi edo hamar ote diren. Sergirengatik iritsia zen Bartzelonara, bidaia batean ezagututako gizon dibortziatua eta bi umeren aita zen harengatik. Arrosa oparitu zion, eta Antiga Fabrica Dammgo kontzertuetara eraman. Hirugarren garagardoak mingaina askatu zionerako, emazte ohiarekin zituen desadostasun eta gorabeherekin gogaitua zuen Selva. Kontzertua bukatu aurretik alde egin zuten. Hilabete eman zuen Selvak gizonaren ezkongabe apartamentuan, bere frustrazioen heldulekutzat hautatu zuela ulertu zuen arte. Sergirekin izandako harreman laburra ez zen erabat antzua izan; liluratu zuen hiria ezagutu zuen, barnealdeko hotz lehorretik urrun, eta, batez ere, noizbait ama izatekotan bakarrik izango zela berretsi zuen.

Asiar itxurako neska gazte batek gogoetatik aterarazi du plastikozko arrosa-sorta aurpegi aurrean jarri dionean. Buruan daraman diademako antenetan dilindan dituen loreei eragin die, Selvak arrosak errefusatu ondoren. «Ez, horiek ere ez, eskerrik asko». Catalunya plazan autobusa hartzea erabaki du; hezetasun handia dago, eta ez du kontsultara izerditurik iritsi nahi. Hutsik doan lehen eserlekuan eseri da. Ondoan duen neska arrosa bati petaloak kentzen ari da; gonak magalean sortzen dion sakonunean pilatuta gelditzen zaizkio. Arrosa modu horretan sarraskitzeko zergatia zein izan litekeen asmatzen saiatu da Selva, eta orduan neskaren sabel hanpatuari erreparatu dio. Haurdun gelditzea erabaki zuenetik haurdunak gertu egokitzen zaizkio etengabe, munduko emakume guztiek halako batean gauza bera erabaki balute bezala. Harekin hizketan hasteko gogoia piztu zaio, baina, zer

esaldirekin has daitekeen erabakitzerako, neska altxatu eta geldialdia eskatzeko botoia sakatu du. Haurdunari bidea egiteko altxatu da Selva, eta begiradarekin jarraitu dio, haren ibilera jendartean galdu den arte. Orduan erreparatu die lurrean barreiatuta gelditu diren petaloei eta eserleku gainean ahaztutako liburuari.

Ohi baino lehenago iritsi da Andreu Bouvila TMBko bulegoetara. Kafe makinaren aurrean solasean ari diren lankideak buru keinu batez agurtu ditu, begiratu gabe ia, haiekin bat ez egiteko asmoa agerian uzteko. Aurreko urteko Sant Jordi egunean jasotako erreklamazio sorta gogora ekartzen ari direla iruditu zaio txanponak sartu bitartean. Zigarroa erreko luke gustura, erre gabe lau urte baino gehiago daraman arren. Laiari esker utzi zion erretzeari, Laiari esker edo Laiarengatik, Andreuk gustuko baitzuen erretzea; «hil ere egin beharko dugu», esan ohi zuen, patua onartuta. Baina Laiarengatik utzi zuen, Laiarengatik lanera joateko alkandorak erabiltzen hasi zen bezala. Zenbat gauza beragatik. Bakearen izenean ez zen haserretu Laiak pilula antisorgailuak hartzeari uzteko aldebakarreko erabakia hartu zuela ohartu zenean. Gaur Laiak berak ukatu dion bake horren izenean.

Atzetik joan zaie kafea hartuta kanporako bidea hartu duten lankideei, eta, egunero egingo balu bezala, bi hatz hurbildu dizkio tabako paketea poltsikotik atera duen lehenbizikoari, «hil ere egin beharko dugu». Erretzaileen elkarrizketa eten egin da une batez, taldean sartutako arrotzaren

asmoa neurtu eta kaltegabea dela ondorioztatu beharko balute bezala; *procés*aren epaiketa dute hizpide, zer bestela, eta pentsatu du batu berri zaiena norantz lerratuko zaien asmatu nahian baleude bezala begiratu diotela. Orduan, *presidentari* buruz gaizki esaka aurkitu du Andreuk bere burua, haren kontra ezer berezirik ez duen arren; edo bai, Laia haren defendatzaile sutua izatea dauka Andreuk haren kontra. Zenbat gauza Laiarengatik, Laiaren aurka. Erretzaileen artean mesfidantza piztu eta Laiaren umearen aitatasuna ez diote itzuliko, ordea, iruzkinek. Isildu eta kea biriketaraino nola iristen zaion sumatzeko kontzentratu da, baina ez dio eragin gogoratzen zuen tamainako plazerik. Kafeari azken hurrupa emanda, bulegorantz egin du.

Hura liburuzalea izan ala ez, bikotekideei liburua oparitzeko ohitura izan du Andreu Bouvilak beti; Aviri ikasitako ohitura. Azken bost Sant Jordietan horixe jaso du trukean ezer oparitu ez dion Laiak, «gure hipokresiaren beste adierazgarri bat». «Bost urte elkarrekin eta oraindik ez zara ohartu nik arrosa nahiago dudala», leporatu dio bart. Gaur zetorrenaren iragarle, pentsatu du Andreuk. Gaurkoa ez baita Sant Jordi arrunta izan; horretaz ohartu behar zuen: arrosa Laiarentzat eta liburua beretzat. Opari trukearen ondoko isilune deserosoa apurtu du Laiaren aitortenak:

—Ez dakit hau nola esan, baina... haurra... ez da zurea, Andreu.

Laiarekin bizi denetik, ezustek errutinazko bihurtu zaizkio Andreuri, eta, batzuetan bikotearen biziraupenerako pizgarri izan direla badakien arren, «bakearen izenean» irentsi

dituenak soilik datozkio orain gogora. Sekula umeak izan nahi zituela aipatu gabe utzi zion bat-batean pilulak hartzeari Laiak; Andreuri aita izan nahi ote zuen pentsatu gabe etorri zitzaion haurdunaldiaren berria, baina pozik zegoela ohartu zen Barçako ekipamendu txikia erakuslehoan ikusi eta eros-teko tentazioari eutsi behar izan zionean.

—Sekula ez dizut gezurrik esan —esan dio Laiak, lasai—. Haurdun nengoela esan nizun, besterik ez.

Harridurak mutu utzi du Andreu une horretan, «haurdun nago» esalditik bera aita izango zela ondorioztatzea akatsa balitz bezala. Orain bai, orain galdetuko lioke zergatik itxaron duen hogeigarren astea arte, umea mutila dela ziurtatu dien ekografia egin arte, izena erabaki arte, Joanek beraren odola ez daramala argitzeko. Eta galdetuko lioke, aita ez bada, Joanentzat zer arraio izango den. Galdetuko lioke, baina etxetik bidali du; arrapaladan lanerantz abiatu, eta bota dio ez duela han ikusi nahi bulegotik bueltan. Damutu zaio, jada, amorru beroaldietan egindako guztiak damutzen zaizkion bezala. Laiak kontuan ez hartzea nahiko luke orain, Graciako pisura itzultzen denean bertan topatu nahiko luke, orain bururatzen zaizkion guztiak bota nahiko lizkioke, galdetu, apur bat estutu, sikiera. Errazegi jarri diola iruditzen zaio orain; hori bilatuko zuen agian, alde egiteko ausardiarik ez, eta Andreuk botatzeko aitzakia bilatzea, «zuk bidali ninduzun, haurra eta guzti» esan ahal izatea. Maitasun proba zentzugabea jarri nahi izan dio, bestela? Leporatu ez dion guztia leporatu nahiko lioke, eta, halere, horrek ez du Joanen aita bilakatuko.

—Bouvila, adi! Atzerapenak L1ean. Dagoeneko hainbat ziurtagiri bideratu ditut.

—Izan dadila hori zure arazorik handiena, Miquel.

—Mmmm... Dena ongi?

—Ez! Atzerapenak L1ean, ez da hala? Bada, goazen lanera!

TMBko langileek espero bezala, mugitua izan da jardunaldia, eta Andreu Bouvilak Miquel gorazalearen esku utzi ditu bere ardurak. Beste edozein egunetan kritikaturko lituzkeen moduei ez ikusia egin die gaur, eta jakin ere ez du jakin L6ren eta L7ren loturan istiluak izan direla Catalunya plazan bildutako manifestari batzuek metroko pasabideetatik ihes egin dutenean. Badaki Miquelek beraren jarrera salatuko duela nagusien aurrean, baina badaki halaber nagusiek badutela lankidearen joera gorazalearen berri eta horri atxikiko diotela dena. Eguneroko bazka bulegoan, beste edozein egunetan haserrea kontrolatzeko ahalmenarentzat proba latza litzatekeena. Baina, beste edozein egunetan, etxeratzerakoan Laia aurkitu du, bi kopa ardo zuri zerbitzatuta, edo kripe gazi egin berria mahaietan, edo kamiseta soilean sofatan etzanda besoak berarengana luzatuta; egunean zehar bulegoan pilaturiko kortisola lurruntzen laguntzen dioten ezuste horietakoren bat beti.

«Pilula antisorgailuak hartzeari utzi diot» esan zion hartan, bi cava kopa prest zituen, eta bere kopak Andreurenaren kontra topa egiten zuela bota zizkion hitzok. Erabaki hartan esaterik ez zuela sinesten zituenaren plantak egin zituen orduan Andreuk, erantzun egokia asmatzeko denbora irabaztearren.

Baina halaxe egin zuen gerora ere, galdetu izan balio kontra egingo ez ziokeela jakitun, eta, azken batean, zertarako kontua nahasi. Bakearen izenean, eta baita zoriontasunaren izenean ere, Laiarekin zuenari zoriontasuna dei zekiokeela uste baitzuen Andreu Bouvilak, edo, behintzat, emakume baten ondoan zoriontasunetik inoiz egon zen hurbilen zegoela, erraietan beste baten semea daramala jakiteak dena kolokan jarri dion arte. Zorionsua izateko, gauza askori deitu behar zaie zorion, irakurri zuen behin, baina egoera berria nekez erantsiko dio orain zerrenda horri.

Catalunya plazan metro linea aldatzera irten denean, zalantza egin du bertan atera edo Gràciaraino jarraitu. Tarte bat egin du bi pasabideen bidegurutzean jendetza artean gelditi, Sant Jordiko giroan murgildu edo hari ihes egin zalantzan. Gràciarantz egin duenean, pentsatu du Avik barkaezin joko zukeela egun handiari muzin egitea, baina Laiak beraren eskaera kontuan hartu ez eta han topatzeko itxaropenak harantz xaxatu du. Ez du garbi, ordea, zergatik aurkitu nahi duen, zintzotasun falta leporatzeko edo barkamena eskatzeko aukera izan dezan. Lehen hitza esaten utziko dio, eta horren arabera erabakiko du zer egin. Oraingoan ez da sorpresatxoekin samurtuko, ordea.

Rovira ingurura gerturatzen ari dela, pentsamendu batek geldiarazi du, «eta Laia ez balego?». Hantxe gelditu da. Zerbitzariak kaña bat jarri dio aurrean ezer esateko aukera izan aurretik. Rovira eguneroko geldialdia izaten zuen Laia berarekin bizitzen jarri aurretik. Manel da hango zerbitzaria, umetatik ezagutzen duen herrikidea, eta Andreuk faltan

sumatzen zuen herriko tabernako giroaren antzeko zerbait aurkitzen zuen han.

—Zer berri, Bouvila? Aspaldi ez zaitugu hemen ikusi.  
—Erantzuna itxaron gabe, telebistako agintea hartu, eta piztu egin du jarraian. Besoak barran bermatu ditu—. Zuk entzungo zenuen zerbait: istiluak metrora ere zabaldu omen dira.

Andreuk sorbaldak igo eta jaitsi dituela ikusita, bolu-  
mena igo du: «...manifestarien eta segurtasun indarren arteko  
liskarren ondorioz, hiru zauritu eraman dituzte Clínic ospita-  
ltera. Liskarrak eguerdian piztu dira, Catalunya plazan, *pro-  
cés*aren kontra deitutako kontzentrazioa amaitzear zela...».

Zerbitzariak hasperen egin du telebista itzali aurretik.

—Zertan bukatuko ote da hau... —Baina Andreu Bou-  
vilaren aldardean ez du solaskiderik aurkitu.

—Manel, zigarrorik baduzu?

—Ez al zenion utzi, bada?

—Hil ere egin beharko dugu...